



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

---

2024ko lehen hiruhilekoa



**LABORAL**  
kutxa

# AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera .....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak .....	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak .....	19
Eranskina – Metodologia .....	23
Fitxa Teknikoa .....	26

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

---


- EAEko familien konfiantza neutraltasunera gerturaten ari da
- Estatuko eta EB-27ko familien konfiantzak gutxi egin du hobera
- eta inguruko herrialdeetan ia ez da aldatu mesfidantza maila

# 1 EAEko familien konfiantza neutraltasunera gerturaten ari da

EAEko familien konfiantzak hobekuntza handia izan du (+4 puntu) urtearen hasieran eta balio positiboetara gerturaten ari da, oraindik ere positiboa ez den arren. Hala eta guztiz ere, eta zuhurtzia nagusi den arren, horixe izan da azken zortzi hiruhileko hauetako emaitza onena.

EAEko familien konfiantzan eragina izan duten eta ezkortasunerako erabakigarriak izan diren arrazoiaren artean, bi nabarmendu behar dira 2022ko bigarren hiruhilekotik: alde batetik, inflazioaren eta interes-tasa handien egoera eta, bestetik, ezegonkortasun geopolitikoak (mundu mailakoa), bultzada ekonomikoaren joera baldintzatzen baitu. Pixkanaka, bi alderdi horiek duten inpaktua gutxitzen joan beharko litzateke, baina oraindik ere EAEko familien konfiantza geldiarazten ari dira (nahiz eta hobekuntza-joera baieztatu den).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE




## 2 | Estatuko eta EB-27ko familien konfiantzak gutxi egin du hobera

2024ko lehen hiruhilekoko datuetan ikus daitekeenez, Estatuko (-18) eta EB-27ko (-16) familien kasuetan ia ez da aldaketarik izan haien konfiantza mailan eta aurreko hiruhilekoko antzeko mailatan mantendu dira (-1 bi kasuetan). Hau da, zuhurtzia da oraindik ere nagusi, baina konfiantzaren susperraldiak geldi eta nolabaiteko ezkortasunean ainguratuta jarraitzen du.

Horrekin lotuta, 2024rako eta 2025erako (NDF<sup>2</sup>) Espainiarako (+% 1,5 eta +% 2,1) eta Eurogunerako (+% 0,9 eta +% 1,7) hazkunde ekonomikoko aurreikuspenek balio normalizatuagoak erakusten dituzte. Aurreikuspen horiek betetzea ala ez, neurri handi batean, inflazioaren beherakadak aurrera jarraitzearen eta, ondorioz, interes-tasetan jaitsiera gertatzearen mende egongo da. Horrekin lotuta, gainera, eragina izan dezake edozein gatazka-faktorek edo ezegonkortasun geopolitikok (eragileen konfiantzan inpaktu handia izaten du horrek).

### Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatua eta EB-27




1. EB-27ko eta Estatuko 2024ko I. hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Urtarrila-otsaila batezbestekoa
2. Munduko ekonomiaren aurreikuspenei buruzko txostena, 2024ko urtarrilean argitaratua

### 3 | eta inguruko herrialdeetan ia ez da aldatu mesfidantza maila

Estatuko eta EB-27 osoko familien kasuan gertatzen den moduan, Euroguneko erreferentziazko herrialdeetako familien kasuan apenas hobetu da familien konfiantza eta, oro har, 2023ko amaierako balio berbera izan dute. Baina badaude ñabardura batzuk: Frantzia (-13), Danimarkan (-4) eta Herbehereetan (-13) zertxobait hobetu da konfiantza –oraindik ere negatiboa den arren–, baina Alemaniako familien kasuan, 2023aren amaierako datuekin alderatuta, mesfidantza maila handitu (-16) egin da.

Emaitza horiek bat datoz ekonomia bakoitzaren bilakaerarekin. Hala, nabarmendu beharrekoak dira Alemaniak izandako atzerakada (-% 0,3) eta Herbehereetako dinamismo txikia (+% 0,1). Aldiz, Frantziak (+% 0,9) eta Danimarkak (+% 1,8) joera hobea izan dute. Era berean, nabarmendu beharrekoa da Eurogune baitan, Espainia dela (+% 2,5) 2023an emaitza onena izan duen ekonomia.

#### Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziazko herrialdeak



1. I. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Europako gainontzeko herrialdeetarako. Urtarila-otsaila batezbestekoa.

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

---


- ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko mesfidantzak aurrera jarraitzen du
- langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak, berriz, positiboak dira
- familiako ekonomiaren bilakaerari buruzko ezkortasuna gutxitu egin da
- eta aurrezkiarekin lotutako igurikimenek hobetzen jarraitzen dute (neutraltasuna)
- EAEko familien konfiantza hobetu egin da elementu guztietan

## 4 | ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko mesfidantzak aurrera jarraitzen du

Hurrengo hamabi hilabeteotako ekonomia orokorraren egoerarekin lotuta EAEko familiek dituzten igurikimenak zertxobait hobetu (+3) dira, baina oraindik ere ezkorrak dira (-18), eta ondorioz, zortzi hiruhilekoz jarraian balio negatibotan egon dira. Hala, oraindik ere datuak ezkorrak diren arren, hautemandako hobekuntza egoera hori zertxobait edo askoz ere okerragoa izango dela uste duten familien taldean izandako jaitsierak (% 42,5; ehuneko -5,2 puntu) bultzatu du. Aldiz, ugaritu egin dira egoera antzekoa izango dela uste dutenak (% 43,0; ehuneko +6,5 puntu) eta horrek konpentsatu egin du askoz ere hobea edo zertxobait hobea izango dela uste dutenen taldeak izandako jaitsiera (% 14,5; ehuneko -1,3 puntu).

Horrekin lotuta, kontuan izan behar da jarduera ekonomikoaren bilakaerari buruzko familien igurikimenak datuek jasotzen dutena baino ezkorragoak izaten direla: EAEko ekonomia % 1,8 hazi zen 2023an, eta zifra hori oso positiboa da eta enpleguaren datu historikoei gehitu behar zaio (+% 1,7, 16.805 lanpostu gehiago).

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE






## 5 | langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak, berriz, positiboak dira

EAEko familiek, 2024aren hasieran, langabeziarekin lotutako igurikimenak hobetu dituzte (+6 puntu) eta 2022ko bigarren hiruhilekotik izandako lehen balio positiboa (2) lortu dute. Eraitza horiek ikusita, beraz, EAEko familien artean, Euskadiko lan-merkatuarekiko konfiantza nagusi dela baieztatu dezakegu.

Gutxi gorabehera, familien heren batek (% 29,5) uste du langabezia gutxitu egingo dela, eta aldiz, lautik batek baino gutxiagok (% 23,7) uste du handitu egingo dela. Langabeziarekin lotuta familiek dituzten igurikimenak erregistratutako langabeziaren eta afiliazioaren bilakaerarekin bat datoz (urtarriletik-otsailera bitarteko batezbestekoa): Euskadik 1.005.378 afiliatu izan zituen (+% 1,7 urte arteko tasan), eta 110.887 langabetu (-% 0,5 urte arteko tasan). Ondorioz, horrek beheranzko joera sendotu du (hamabi hiruhilekoz jarraian).




## 6 | familiako ekonomiaren bilakaerari buruzko ezkortasuna gutxitu egin da

Familiako ekonomiarekin lotuta EAEko familiek dituzten igurikimenak berriro ere hobetu egin dira (+4 puntu) eta horrek susperraldia sendotu eta 2023an izandako balio okerrenetatik aldendu du. Gorakada izan dute egoera hobetu (% 14,1; ehuneko +2,0 puntu) edo berdin mantenduko (% 65,1; ehuneko +2,5 puntu) dela uste duten familiek, eta horrek ahalbidetu du emaitza hori. Hori guztia egoera okertu (% 20,9; ehuneko -4,5 puntu) egingo dela uste dutenen artean gertatutako beherakadari kontrajarrita dago.

Bistakoa den moduan, azkenaldiko inflazio-egoerak eragina izan du gastuarekin lotutako erabakietan (prezio handiagoei aurre eginda), inbertsioan (finantzaketaren kostua, interes-tasen gorakada) eta aurrezkian (ordainsari hobea). Baina oro har, inflazioa (KPI orokorraren igoera) gehiago eta espero baino bizkorrago menderatu da (otsailean, +% 2,6, Eurogunean izandako gorakadarekin bat datorren datua) eta, ondorioz, EBZk (2024ko martxoaren 7an) interes-tasen jaitsiera ekainean aztertzea planteatu du.

### Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak. EAE




## 7 aurrezkiarekin lotutako igurikimenek hobetzen jarraitzen dute (neutraltasuna)

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko herritarrek ia berdin mantendu dituzte (+1) aurrezkiarekin igurikimenak. Ondorioz, bi urtez nahiko balio negatibotan (-2, 2022an eta 2023an, urteko batezbeste) egon ondoren, adierazlea zertxobait positiboa (0,13) izan da. Horrekin lotuta, aipatu behar da langabeziarekin lotutako igurikimenen indizearekin batera (-1 eta -4, 2022an eta 2023an) balantze orokor onena izan dutenak direla (hau da “horren negatiboakizan ez direnak”).

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko hamar familiatik ia bik aurreztuko dute seguru (% 17,5; ehuneko +4,4 puntu) eta ia hamarretik lauk seguru asko aurreztu dute (% 35,9, ehuneko -4,9 puntu). Aldiz, gainerako familiek adierazi dute ez dutela aurreztuko (% 46,6; ehuneko +0,6 puntu) seguru asko edo ziurtasunez.

Emaitza horiek ikusita, familien aurrezki-igurikimenen indizea kontsolidatu egin dela eta ia positiboa dela esan dezakegu. Dena den, azkenaldiko egoera baino iritzi zuhurragoak jaso dira; izan ere, familien bi herenek adierazi dute kontsulta egin den unearen aurreko hamabi hilabeteetan aurreztu dutela (% 69,5; ehuneko -0,5 puntu).



## 8 EAEko familien konfiantza hobetu egin da elementu guztietan

2024ko lehen hiruhilekoko emaitzei erreparatzen badiegu, familien konfiantza neurtzeko erabiltzen ditugun lau elementuak hobetu egin direla ikusiko dugu. Konfiantza-indizea hobetu da (+4 puntu), baina oraindik ere zertxobait negatiboa (-5) da, oraindik balio neutro edo positiboetara iritsi ez diren bi elementuren ondorioz.

Balio negatibotan jarraitzen duten familiaren konfiantzarekin lotutako bi osagaiei dagokienez, ekonomia orokorraren bilakaerarekin lotutako ezkortasuna (-18) nabarmendu behar da (denborari dagokionez joera negatiboagoa du) eta familiako ekonomiarekin lotutakoa (-5) gainditu du.

Langabeziaren bilakaerarekin eta aurrezteko gaitasunarekin lotutako igurikimenek izandako hobekuntza argiaren (+6 eta +1 puntu) ondorioz, bi adierazle partzial horiek balio positibotan (+2 eta +0,13) daude, eta horiek, aldi berean, familien konfiantza hobetzea bultzatu dute.

Beste nolabait esanda, itxuraz, EAEko familiak, 2024aren hasieran, azken laurtekoan (2020-2021 eta 2020-2023) izandako ezohikotasunaren gorabeherak gainditzen hasi dira. Izan ere, azken laurteko hartan eragin handia izan zuen nolabaiteko ezohikotasun-egoerak.

### Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	2023	IIH-23	IIIH-23	IVH-23	IH-24	Aldea
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-11	-9	-7	-13	-9	-5	4
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-16	-25	-21	-18	3
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-11	-16	-9	-5	5
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	-4	0	-6	-4	2	6
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	-2	1	-4	-1	0	1


↔ (±2 puntuko aldea)



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

---

- prezioak gutxiago mantsiago direla aurreikusten dute EAEko familiek
- erosteko unearekin lotutako balorazio ezkorra mantendu dute
- erosketa handiak egiteko asmoa ere gelditu egin da
- etxebizitza erosteko asmoa mantendu egin da; aldiz, autoa erosteko asmoa, handitu
- kontsumo handiarekin lotutako igurikimenez maila apalean jarraitzen dute




## 9 | prezioak gutxiago mantsoago direla aurreikusten dute EAEko familiek

EAEko familiek prezioen gorakadarekin<sup>1</sup> (1) lotutako igurikimenak egokitu dituzte eta gorakada hurrengo hamabi hilabeteotan mantsoagoa izango dela aurrez ikusi dute. Beste nolabait esanda, hainbat hiruhilekoz goranzko joera izan ondoren, baliteke EAEko familiek pentsatu izatea prezioen gorakada mugara iritsi dela. Zehatzago esanda, EAEko familien % 31k (-5 puntu) uste du prezioak bizkorrago igoko direla hurrengo hamabi hilabeteotan. Aldiz, familien % 32k uste du prezioak mantsoago igoko direla (+3 puntu).

Igurikimen horiek ikusita, EAEko inflazioaren geldialdia (KPI orokorra eta azpikoa<sup>2</sup>, otsaileko urte arteko tasan, +% 3,1 eta +% 3,9%) Euroguneko beste herrialde batzuetakoaren antzekoa izan da (Alemanian edo Frantzian, adibidez, otsaileko urte arteko tasa-igoerak +% 2,7koak eta +% 3,1koak izan dira KPI orokorrean). Horri esker, 2024ra begira, inflazioaren igurikimena % 2koa da. Hori guztia eta jarduera ekonomikoaren joerarekin lotutako datu hobeak direla eta, EBZk interes-tasen jaitsiera aurreratu du (martxoaren 7an) ekainerako eta horrek finantzaketaren kostua gutxituko du.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?<sup>1</sup> (pertsonek %a)

■ II H 2023 ■ III H 2023 ■ IV H 2023 ■ I H 2024



<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteetarako dagokionez; <sup>2</sup> Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

## 10 | erosteko unearekin lotutako balorazio ezkorra mantendu dute


Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

Prezioek 2021eko amaieratik jasandako etengabeko gorakadak familiako ekonomiaren igurikimenetan eragina izan du, baina, itxuraz, zertxobait suspertu direla dirudi. Dena den, ez du eraginik izan erosteko unearen balorazioan; izan ere, oraindik ere balio negatiboetan dago (-23) eta ia ez da aldatu aurreko hiruhilekoko datuekin (-1 puntu) alderatuta.

Horrekin lotuta, erosketa handiak egiteko une ona dela uste duten familien indizea mantendu egin da (% 8), ia puntu bat gutxitu dira erosteko unek ez diela axola dioten familiak (% 61), eta puntu bat baino gutxiago ugaritu dira une txarra dela uste duten familiak (% 31).

*Erosteko unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago. Hala, familien heren batek uste du une txarra dela (zifra hori azken urtean ez dutela aurreztu erantzun dutenen antzekoa da).*

Erosteko unearen balioztapena<sup>1</sup>  
(pertsonek %a)



<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteetarako datuak

## 11 | erosketa handiak egiteko asmoa ere gelditu egin da


**Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan<sup>1</sup>?**

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko familien artean, erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizea (-6) aurreko hiruhilekoetan zuen balio antzekotan mantendu da (-7, -5, -8 eta -7, 2023ko lehen eta laugarren hiruhilekoen artean).

Erosketa handiagoak (% 18, ehuneko +1 puntu) edo berdinak (% 58, ehuneko +2 puntu) egingo dituztela aurrez ikusi duten familien taldeak izandako hobekuntzak eragin du emaitza hori. Aldiz, erosketa horiek txikiagoak izango direla diotenen taldea gutxitu egin da (% 24, ehuneko -3 puntu).

Indizearen balioaren egonkortasuna (oraindik ere zertxobait negatiboa da) bat dator 2023ko familien kontsumoak izandako gorakadarekin (+% 1,5). Datu hori EAEko ekonomiak sortutako aberastasuna baino txikiagoa da (+% 1,8, KPlaren igoera) eta, zalantzarik gabe, baita 2022koa baino txikiagoa ere (+% 7,7koa izan zen, 2021eko eta 2022ko biurtekoa ezohikoa izan zelako).

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan<sup>1</sup>




<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteetara dagokienez.



## 12 | etxebizitza erosteko asmoa mantendu egin da; aldiz, autoa erosteko asmoa, handitu


Urteko lehen hiruhilekoan, EAEko familien % 0,4k bakarrik adierazi du hurrengo hamabi hilabeteotan (ia ziur) etxebizitza erosiko duela. 2023an, salerosketako<sup>1</sup> 20.696 eragiketa formalizatu ziren; hau da, 2022an baino % 12,5 gutxiago. Horrek agerian utzi du finantza-kostuaren gorakadak (koiunturala) eta estrukturalagoak diren beste faktore batzuek eragindakoa inpaktua (eskaintza eskasa eta zahartze-faktorea familiak sortzeko garaian). Horiek guztiek joera oztopatu dute.

### — Etxebizitza erosteko asmoa — (hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



Hurrengo hamabi hilabeteotan ibilgailua erosteko asmoa izango luketen familien kopuruak % 5,5era arte egin du gora. Gainera, 2024<sup>2</sup>. urtera begira, ibilgailuen matrikulazioa hobetu egingo dela aurreratu dute urteko lehen bihilekoan ikusitako emaitza positiboekin bat eginda (+% 7,9 urte arteko tasan). Hala ere, bolumen hori 2018an izandakoaren ia erdia da (3.924 eta 6.942 unitate urtarri-otsaileko agregatuan).

### — Ibilgailua erosteko asmoa — (hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



<sup>1</sup> EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); <sup>2</sup> Anfac.




## 13 | kontsumo handiarekin lotutako igurikimeneak maila apalean jarraitzen dute

Lehen hiruhilekoko emaitzek agerian utzi dute erosketa handiak egiteko asmoaren epeltasunaren oinarri den zuhurtzia edo behargabezia. Ondorioz:

- Prezioen bilakaerarekin lotuta EAEko familiek dituzten igurikimenak positiboak dira (+1) hobekuntza handia (+8 puntu) izan ostean. Horrek guztiak azkenaldian jasandako inflazio-joeraren amaiera iragarri du. 2016tik lehen aldiz, prezioen igurikimen-indizea positiboa da, KPlaren goranzko joerak izan duen moteltzearekin bat etorrira (EAEko KPI orokorra, otsailean, +% 3,1).
- Erosketa handiak egiteko une honen inguruko balorazioa da oraindik ere emaitza okerrena izan duen indizea (-23). 2020an okertu egin zen, eta 2022an hondoa jo, inflazio-joera abiatu zenean.
- Hala, erosketa handiak egiteko igurikimeneak ez dute aldaketarik izan eta oraindik ere ez dira positiboak (-6). Ondorioz, ibilbidea egonkortasunekoa dela esan dezakegu, baina beheranzko joerarekin.
- Urtearen hasieran, etxebizitza erosteko asmoaren indizea mantendu egin da (familien % 0,4k dio etxebizitza erosiko duela) eta autoa erostearekin lotutako asmoak, aldiz, gorakada txikia izan du (familien % 5,5ek adierazi du ia ziur erosiko duela).

EAEko familien artean, kontsumo eta inbertsio handiak egitearekin lotutako igurikimeneak prezioen gorakada gertatuko dela (nahiz eta erritmo txikiagoan izan) eta finantzaketa-kostua handitu egingo dela jasotzen dute. Horrek bi eragin izan ditu: gastuak atzeratzea edo murriztea (erabaki horiek zuhurtziak eragindakoak dira).

### Kontsumoari buruzko igurikimeneen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	2023	II H-23	III H-23	IV H-23	I H-24	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-4	-7	-7	1	8	
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-27	-25	-29	-23	-23	0	
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-11	-7	-5	-8	-7	-6	1	

⇔ (±2 puntuko aldea)

# ERANSKINA – INDIZEAK

---

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



# I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	2023	II H-23	III H-23	IV H-23	I H-24	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-7	-13	-9	-5	▲
• Estatua*	-6	-23	-13	-26	-19	-19	-16	-19	-18	▶
• EB*	-6	-15	-8	-23	-19	-18	-17	-17	-16	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-18	-17	-17	-15	-15	-13	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-15	-13	-15	-15	-16	▶
○ Danimarka*	4	1	5	-14	-8	-7	-6	-6	-4	▶
○ Herbehereak*	-7	-13	-4	-25	-18	-19	-18	-14	-13	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE										
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-16	-25	-21	-18	▲
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-11	-16	-9	-5	▲
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	-4	0	-6	-4	2	▲
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	-2	1	-4	-1	0	▶
Beste indize batzuk. EAE										
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-4	-7	-7	1	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-27	-25	-29	-23	-23	▶
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-7	-5	-8	-7	-6	▶
Erosketa handiak. EAE.**										
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	0,6	1,1	0,4	0,2	0,4	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	4,3	4,8	3,9	4,0	5,5	▶

↔ (± 2 puntuko aldea)

\* IV. hiruhileko datuak urria-azaroa batez bestekoari dagozkio.

\*\* Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

## II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	2022	2023	II H-23	III H-23	IV H-23	I H-24	
<b>Kontsumitzaileen konfiantza-indizea</b>										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-7	-13	-9	-5	▲
Adin-taldeak										
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	-10	-11	-11	-7	-9	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	-9	-7	-14	-7	-5	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	-6	2	-10	-8	-3	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	-12	-8	-15	-15	-4	▲
Lan egoera										
• Landuna (soldatapekoa/norbere kontura)	1	-19	-4	-10	-7	-5	-11	-5	-5	▶
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-23	-20	-25	-23	-24	▶
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	-9	-5	-13	-11	-1	▲
Familia-unitatearen hileko errenta										
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-20	-22	-27	-13	-17	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	-9	-5	-11	-15	-4	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	-1	4	-3	-1	1	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

### III | beste adierazle batzuk

	I H – 23	II H – 23	III H – 23	IV H – 23	I H – 24 <sub>b</sub>	(azkena)
BPG	2,4	1,5	1,7	1,7	--	IV hiruhilekoa
Familien kontsumoa	1,8	0,9	1,6	1,5	--	IV hiruhilekoa
Afiliazioa	-0,3	1,2	-0,8	1,8	-0,6	urtarrilla-otsaila
Erregistratutako langabezia	0,3	-4,1	0,3	1,2	2,2	urtarrilla-otsaila
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	2,8	1,1	-0,7	1,5	--	IV hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	24,0	-19,5	-0,3	-17,1	--	IV hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	-3,0	9,6	-18,8	29,4	-14,9	urtarrilla-otsaila

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.


Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

# ERANSKINA– METODOLOGIA

---

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




# I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea<sup>1</sup> kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



<sup>1</sup> *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.



## II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobearainoko bitartean) sailkatzen da.

**Osagaiak: konfiantza-indizea**

**Hauen indize partzialak:**

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

## **Fitxa teknikoa**

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2024ko otsailaren 12tik 24ra (2024ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

## **Metodologia**

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea [http://ec.europa.eu/economy\\_finance/db\\_indicators/surveys/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm)